



Gure asmoa argia da, egunero Bilboko San Frantzisko auzoan dauden Ertzaintzako eta Udaltzaingoko agenteen kopuru neurrigabea ikusaraztea eta zalantzan jartzea. Era berean, egoera administratibo irregularrean dauden pertsonen harrapaketak, profil etnikoaren ondoriozko geldialdiak, indarkeria, jazarpena, legez kanpoko uzteak, atxikipena eta atxiloketa salatzea.

Atzo bigarren aldiz elkartu ginen Fleming plazan, gure "Arrazakeria Gure Auzoetatik Kanpo" kanpainaren barruan. Kanpaina horretan, poliziek pertsona arraziatuei, batez ere gazte migratuei eta arraziatuei egiten dieten bereizkeria eta jazarpena salatzen dugu.

Kontzentrazioarako adostutako ordua baino lehen, bi furgoneta, bi auto, eta poliziaren bi kidegoetako 24 agente inguru (eta zenbait herrikide) zeuden ordurako prest. Ez dugu uste hainbeste baliabide galdu behar direnik manifestaziorako eskubidea erabiltzen zuten 40 pertsona inguruko jarduera batean, baliabide horiek bizikidetzara osasuntsu eta kulturartekoa, harrera-programak indartzea, osasun publikoan inbertitzea, anbulatorioak ez ixtea eta kaleko egoeran dauden pertsonentzako etxebizitza duinen programak ezartzea lortzera bideratuta egon daitezkeenean.

Paradoxikoa da auzoaren militarizazioa salatzen dugunean poliziaren hedapenak hainbesteko indarra izatea non arrazoa eman besterik ez digun egiten. 15 minutu inguru igaro ondoren, Ertzaintzako bi agente hurbildu ziren gure erakundeak kontzentrazio-baimenean ezarritakoa ez zuela betetzen jakinarazteko, jarduerak erakunde-arrazismoa bakarrik aipa zezakeelako. Espediente bat ireki zigitela jakinarazteaz gain, "poliziak diskriminatzen du" eta "polizia arrazista da" kontsignak errespetu falta zirela esan ziguten; izan ere, polizia kidegoei egindako irainak ziren eta, jarraitzen bagenuen, kontuan hartuko zituztela zigor administratiboan.

Polizia eta Estatuko segurtasun-kidegoak erakunde publikoak dira. Arrazakeria instituzionala ez da metafora bat, ez da iritzi bat eta are gutxiago iraina. Ondo dokumentatutako menderatze-sistema da, eta migratzaileak, arrazonatuak, afrikar ondorengoak eta ijitoak zapaltzen dituzten desberdintasunak mantentzen ditu. Poliziaren jardun arrazistak politika diskriminatzaile baten parte dira. Poliziaren arrazakeria agerian geratzen da SOS Arrazakeria Bizkaiaren bulegoan jasotzen ditugun arrazakeria instituzionalaren salaketa guztien ia %70ean. Gainera, Europatik onartu da praktika arrazistak —hala nola profil etnikoaren araberrako geldialdiak— Europako estatuetakoko polizia kidegoetan orokortzen direla.

Nola esan daiteke "polizia arrazista da" zigortu eta isuna jar dakiokela, baina poliziak irain arrazistak argi eta garbi esaten dituenen, berriz, zeharo zigorgabea? Orduan, Estatuaren segurtasun-gorputzak, erakunde zapaltzaile izatearen errealitatean, haren arrazismoan eta ahultasun zurian aitor bedi.

Lehenengo pausoa sistema arrazista baten partaide direla onartzea da eta hortik aurrera, aurrera egiten duten, ikasten duten eta hobeto bizi diren gizarteak sustatzea.

SOS Arrazakeria Bizkaitik berriro diogu polizia- kidegoen presentzia gehiegizkoa San Frantzisko auzoan. Han bizi diren pertsona arrazisten aurka egiten den kriminalizazioa salatzen dugu, eta manifestazio aserako eskubidea defendatzen dugu. Arrazistak direla esatea ez da iraina, errealitatea baita.